LAZKAOKO IKASTOLA

OSASUNARI BURUZKO ARAUDIA:

Haur txikien inmunitate-sistema murriztua da eta horregatik helduak baino samurrago gaixotzen dira. Haurrak, gaixorik dagoenean, arreta eta baldintza bereziak eskatzen ditu, alegia ikastetxeek eskaintzen ez dituztenak. Horrela, gaixo-aldian eskolaratzeak atzeratuko luke sendatzea. Haurra gaixorik dagoenean etxean zaindu behar da, gaixotasun egoerak eskatzen duen arreta, atsedena eta zaintza egokienak etxean ematen direlako.

- **Haurra noiz EZ DA eraman behar ikastolara?**

  1. Zentzuak hala esaten digunean.
  2. Ikastolan eman ezin zaion zaintza behar duenean edo ikastolako ekintzetan egoki parte hartzeko moduan ez dagoenean.
  3. Besteak beste, honako sintoma hauek dituenean:
     - ➔ Sukarra edo febrikula. Baina, nola definitzen da sukarra?

       TENPERATURA NORAMALA: 37 gradutaraino besapean.

       FEBRIKULA: 37 eta 38 gradu artean.

       SUKARRA: 38 gradutik gora.

       24 ordu sukarrik edo febrikularik gabe egon ondoren eraman daiteke ikastolara.
     - ➔ Arnas zailtasuna eta/edo eztul iraunkorra(ez bada katarro arrunta).
     - ➔ Suminkortasuna (negar kontsolaezina).
     - ➔ Gorakoa.
     - ➔ Hauetako gaixotasunen bat duenean:
       - ❖ Beherakoa: kaka normaldu eta 24 ordu igaro ondoren eraman daiteke ikastolara.
       - ❖ Konjuntibitis zornetsua (begiak gorri eta jarioa): tratamendua hasi eta 24 ordu igarotakoan eraman daiteke ikastolara.
       - ❖ Infekzioa azalean (inpetigoa).
       - ❖ Exantemak (mantxak azalean), aftak eta eskarlatina.
       - ❖ Zorriak (tratamendu gabe).
       - ❖ Hazteria, barizela, kukurruku-eztula, elgorria, hazizuriak, tuberkulosia, A hepatitisa.
       - ❖ Pediatrak edo zentzuak gomendatzen duen beste edozein egoeratan

LAZKAOKO IKASTOLA

- **Noiz itzuli daiteke ikastolara?**
  Lazkaoko pediatria sailak emandako aholku eta dokumentazioan (Gipuzkoako osasun publikoko epidemologia unitateak ikastetxeetan infekzioak kontrolatzeko diseinatutako gida) oinarrituta etxeratze-aldiak finkatu dira zenbait gaixotasunen aurrean:
  1. Barizela: Puslak lehortu arte eta, gutxienez, erupzioa hasi eta 5 egun igaro ondoren.
  2. Errubeola: exantema hasi eta 6 egun igaro ondoren.
  3. Oin/esku/aho gaixotasuna: pediatrak alta ematean.
  4. Inpetigoa: zauriak lehortu edo sendatu arte, edo antibiotikoa hartzen hasi eta 48 ordu igaro ondoren.
  5. Elgorria: pediatrak alta ematean.
  6. Lepamina: pediatrak alta ematean.
  7. Hepatitisa: analisien normalkuntza eta pediatrak alta ematean.
  8. Eskarlatina: botika hartzen hasi eta 3 egun igaro ondoren.
  9. Tuberkulosia: berriro eskolara joateko medikuaren baimena beharko da, bertan kutsagarritasun-eza adierazten delarik.
  10. Gripea: erabat sendatu ondoren (gutxienez 24 ordu sukarrik gabe).
  11. Kukurruku-eztula: antibiotikoarekin hasi eta 5 egun igaro ondoren. Tratatu gabeetan 3 aste.
- **Medikazioari dagokionez:** gaixotasun iraunkor ez kutsagarriengarik, haurrek mediku-tratamendua behar izanez gero, eta botikak eskola orduen barne hartu behar badituzte, gurasoek hezitzaileari eman beharko diote pediatraren errezeta, zeinetan dosia eta hartze-orduak azalduko diren. Botikak 8 ordutan behin edo gehiagotan hartu behar direnean, guraso edo gurasoordeek eman beharko dizkiote, ikastolan sartu eta irtetzerakoan.
- **Elikadurari dagokionez:** haurren batek, gaixotasun bat dela medio, dieta berezi bat behar izanez gero, gurasoek medikuaren informea aurkeztu beharko dute, bertan haurraren jaki-zerrenda zehaztu eta horren zergatiak azalduko direlarik.
- **Bestelakoak**:
  - Akainaren ziztada